

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen ordenantzaren eta gizarte zerbitzuei buruzko udal araudiaren hasierako onarpena

Zigoitiko Udalaren Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 20an egindako ohiko bilkuran, gizarte-zerbitzuei buruzko ordenantza eta udal-araudi hauei hasierako onarpena ematea erabaki zuen:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen ordenantza.
- Esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua arautzen duen erregelamendua.
- Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua arautzen duen erregelamendua.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxebizitzaren zerbitzua arautzen duen erregelamendua.
- 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan adinekoentzako ostatu-zerbitzua, eguneko arreta eta zerbitzu osagarriak arautzen dituen erregelamendua.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera, espedienteak jendaurrean jarriko da 30 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera, aztertu ahal izateko eta egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Ohartarazten da ezen, epe horren barruan erreklamaziorik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak behin betiko onetsitatzat joko direla, eta Osoko Bilkurak ez duela beste erabakirik hartu beharko.

Halaber, interesdunen eskura egongo da udal honen web orrian: www.zigoitia.eus.

Ondategin, 2025eko urriaren 23an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA